

IKERTALENT DEIALDIA 2026

“Interes-adierazpenak” bidaltzeko prozedura

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU aurrerantzean) interes-adierazpenen prozesu baten deialdia egiten du nekazaritzaren, arrantzaren eta elikagaigintzaren sektoreko zientzia-teknologiaren eta enpresaren arloetan doktoratu aurreko ikertzaileak prestatzeko laguntza-programaren onuradun izan daitezkeen bi proiektu hautatzeko (aurrerantzean **Ikertalent**). Bi proiektuen finantzaketa doktoratu aurreko kontratura mugatzen da, ez dago zuzkidura gehigarririk.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak bidalitako azken orduko enkargua da, eta berehalako erantzuna behar du. Horregatik doitu dira dokumentu honetan zehaztutako epeak.

✓ **GAI EREMUA:**

Aurkeztutako proiektuek lotura zuzena izan beharko dute ELIKADURAREN eremuarekin, eta, zehazki, jarraian deskribatutako 10 azpieremuetako batekin edo batzuekin:

- elikadura iraunkorra/osasungarria
- elikagaien segurtasuna
- nutrizioa
- elikadura-sistemak
- agroelikadura
- elikagaien teknologia
- elikagaien ekoizpen jasangarria
elikagaien ekonomia zirkularra
- elikadurarekin lotutako osasun Publikoa
- elikagaien bioteknologia

✓ **EXEKUZIO-EREMUA:**

Proiektuak EHUn onartutako ikerketa-talde baten esparruan gauzatu beharko dira eta deialdi hauetariko batera eskabidea aurkeztu duten taldeak bakarrik izango dira hautagarriak:

- Euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeek jarduerak bultzateko laguntzen deialdia 2026-2029
- EHuko ikerketa-taldeentzako laguntzen deialdia (2026-2029). I.modalitatea. Unibertsitateko ikerketa-talde berriak

✓ **INTERES-ADIERAZPENAK BIDALTZEKO PROZEDURA:**

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta EHuko idazkari nagusiaren 2024ko irailaren 11ko Ebazpenean (EHUren funtzionamenduaren eta jardueraren erregelamendua bitarteko elektronikoen bidez argitaratzekoa) ezarritakoaren arabera, interes-adierazpenak EHUren egoitza elektronikoen bidez soilik aurkeztuko dira <https://egoitza.ehu.eus> ."ESKATU" eremuan "Ikertalent 2026" erreferentzia adierazi behar da eta " XEDE-UNITATEA" eremuan "Ikerketa Errektoreordetza - GGGB (U02000381)".

Horretarako, egoitza elektronikoa jasotako identifikazio- eta sinadura-bideetako edozein erabili ahal izango da, hala nola BakQ, NAN elektronikoa edo Diru eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren FNMT-CERES ziurtagiria. Izenperen ziurtagiri

profesionala hodeian duzula "Ziurtagiri digitalak" aukeraren bidez sartzeko, beharrezkoa da profesionalentzako txartel birtuala hodeian instalatuta izatea eta saioaren hasiera egitea.

Interes-adierazpenak bidaltzeko epea **2026ko maiatzaren 26tik ekainaren 2ra** bitartekoa izango da.

✓ **EBALUAZIO-PROZESUA:**

Ikerketa Errektoreordetzak berariaz sortutako batzorde baten bidez aztertuko ditu jasotako adierazpen interesgarriak, eta baztertu egingo ditu aurrez adierazitako gairen batekin zuzeneko loturarik ez dutenak.

Bi interes-adierazpenak/proiektuak honako IRIZPIDE hauen arabera hautatuko dira:

1. Aurkeztutako proiektuaren interes zientifikoa eta kalitatea. Gehienez 40 puntu lor daitezke, honako haztapen honekin:

- Ikergaiaren aurrekariaren eta egungo egoeraren azterketaren kalitatea eta bibliografia (10 puntu, gehienez).
- Ikerketaren helburu orokorren garrantzia (10 puntu, gehienez).
- Metodologiaren eta egin beharreko ikerketa-lanen egokitzapena (15 puntu, gehienez).
- Proposatutako ikerketa-proiektua gauzatzeko finantzaketa eta baliabide tekniko erabilgarriak (5 puntu, gehienez).

2. Proiektua gauzatu den harrera-taldearen ekoizpen-adierazleak, betiere 2020 - 2025 aldiaren kokatuta. Gehienez 60 puntu lor daitezke, honako haztapen honekin:

- Ikertaldeak eginiko ikerketa zientifikoaren kalitatea.** Adieraztitako gaiei dagokienez, ekoizpen zientifikoaren bikaintasun maila eta produktibitatea baloratuko dira. Kontuan izango dira argitalpenak (liburuak, liburu kapituluak, berrikuspenak, ebaluatutako argitalpen elektronikoak eta aldizkari zientifikoetako artikulua), biltzar zientifikoetan eginiko ekarpenak edo zientzia arlo bakoitzean garrantzitsua den beste edozein adierazle.

Argitalpenen eta gainerako ikerketa-eraketaren balorazioa egiteko, garrantziaren, originaltasunaren eta interes-adierazpenean hautatutako gai-eremuarekiko koherentziaren ebaluazio kualitatiboa egingo da. Zerrendak, ranking zientifikoak eta zitazio-adierazleak testuinguru-informazio gisa baino ez dira erabiliko, ez direlarik automatikoki aplikatuko, ezta eremu zientifiko desberdinen artean konparaketak egiteko erabiliko. Era berean, arlo bakoitzean garrantzitsuak diren beste ikerketa-eraketa batzuk baloratu ahal izango dira, hala nola erakusketak, katalogoak, datu-multzoak, softwarea, garapen metodologikoak, azpiegitura zientifikoak, estandarrei egindako ekarpenak, inpaktu publiko edo sozialari buruzko txostenak eta zientzia irekiaren praktikek aitortutako beste produktu batzuk.

Gehienez 5 adierazle sartu ahal izango dira atal honetan (argitalpenak eta ekarpen zientifikoak), eta **gehienez 20 puntu** emango dira.

- Ikertaldeak ikertzaileak trebatzeko duen gaitasuna.** Baloratuko dira doktorego aurreko eta ondoko kontratatutako pertsona kopurua eta baita defendaturiko tesiak, bi kasuetan, interes-adierazpen honetako gai-eremuei lotuta baldin badaude eta 2020-2025 aldiakoak badira. Ebaluazioak kontuan izango du, prestakuntza jardueraren bolumena ez ezik, kalitatea ere.

Atal honetan **gehienez doktoratu aurreko/doktoratu ondoko 3 kontratu** eta defendatutako **2 tesi** sartu ahal izango dira, eta **gehienez 20 puntu** emango dira.

- Ikertaldeak ikerketarako eta jakintzaren transferentziarako lortutako finantzaketa.** Ondorengo baloratuko da:
 - Lortutako finantzaketa eta zenbatekoa, kontuan harturik bereziki proiektuen lidergoa eta deialdien izaera lehiakorra.
 - Jakintza transferitzeko ekintzak, administrazio publikoekin edo enprekin eginiko ikerketa kontratuen edo hitzarmenen bidez, eta jakintza transferitzeko hitzarmenen bitartez, bideratuak ikerketa kudeatzeko bulegoen bidez, edo unibertsitate, institutu eta ikerlanean antzeko organoen bitartez.

Gehienez 5 adierazle sartu ahal izango dira (proiektuak eta transferentzia-ekintzak) eta **gehienez 20 puntu** emango dira.

✓ **INTERES-ADIERAZPENAK HAUTATZEA:**

Jasotako interes-adierazpenak/proiektuak aztertu ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak hautatutako eta baztertutako proiektuen behin-behineko zerrenda argitaratuko du, eta deskribatutako ebaluazio-irizpideen arabera lortutako puntuazioa adieraziko du. Proposamena egin duten ikertzaileek 3 egun balioduneko epea izango dute alegazioa aurkezteko.

Epe hori igarota, hautaketa behin betiko bihurtuko da.